

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko URTARRILA · 318 zenbakia



Haize berri
koloretsuak



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Gaia: ume-kanta

Arre burro mandako

(Entzuteko: www.alboka.es)

Arre burro mandako
bixar Tolosarako,
etzi Pamplonarako.

Handik zer ekarriko?
Zapata eta gerriko!

Harek norentzako?
Lierrentzako asko-asko!

Aupa gora!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Estibalitz González.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Valentin Mugarza,
San Pelayo ikastetxea
eta Ainara Riveras.

ARGAZKIAK:

Irazu Aranburu, Estibalitz González,
Eneko López, Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri, San Pelayo
ikastetxea eta Dorleta Vidal .

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Agirre,
Piedi Eizagirre
eta Koldo Narbaiza.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondrengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eneko López · Tarragonan ikasle

“Etxetik kanpo ikasteko aukera ez nuen galdu nahi”

Eneko López ermuarra Tarragonara joan zen iazko irailean, kazetaritzako 3. maila egitera SICUE programaren bitartez.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Erabaki erraza izan zen?


Bai. Argi nuen ezin nuela galdu etxetik kanpo ikasteko aukera, baina aitortu behar dut ez nekiela zein izan zitekeen tokirik egokiena nire ikasketekin jarraitzeko, eta ez nuen Tarragona nire lehen aukeren artean. Erabakia hartzeko momentuan hiru gauza izan nituen kontuan: Katalunia ezagutzeko aukera, inguru hartaz gertuko lagun batek zuen iritzia eta Mediterraneoko eguraldia.

Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Egia esanda, ez nekien asko Tarragonari buruz. Hamaika urte nituenean bertatik pasatu nintzen Port-Aventura parkera nindoala, baina ez neukan inolako

“Hiri oso aberasgarria da Tarragona, eta edozein lekutan erromatar kulturari buruzko egiturak aurki ditzakezu”

oroitzapenik. Nire aurreiritzi bakarrak ziren eguraldi ona eta Mediterraneo itsasoko ur beroak. Baina hiri oso aberasgarria da, eta edozein lekutan erromatar kulturari buruzko egiturak aurki ditzakezu. Tarrago-





nako hondartza guztiak inguratzen dituen pasealekua da hiriko tokirik politena eta, temperatura epelak direla-eta, jendea askotan joaten da bertatik.

Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan?

Hemengoek katalanez hitz egiten dute, nola ez. Tarragona inguruan zenbait lagun ditut, eta zeozer ikasi nuen haiei esker. Hemengo klaseak katalanez egiten ditut ere, eta ez da hain zaila. Azken finean, egunero entzuten dudana hizkuntza bat da eta gaztelaniaren antza handia du.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Noski, nire familia eta kuadrilla, batez ere. Nahiz eta telefonoz edo whatsapp-etik hitz egin, ezin naiz haiekin aurrez aurre egon, ezta orain arte egunero ikusten nuen jendearekin. Beste aldetik, poteoa botatzen dut faltan. Azken batean, poteoa Euskadiko ohitura da eta Katalunian ez da asko ikusten.

Nolakoa da zure egun arrunt bat?

8:00ak aldera esnatzen naiz eta, gosalduta ostean, gimnasiora noa. Kirol pixka bat egin eta gero, etxeko gauzak egin eta bazkaria prestatzen dut. Klaseak 12:00etan hasten ditut goizez, eta 14:00etan etxera bueltatzen naiz bazkaltzeko. Arratsaldean 15:00etan hasten naiz eta normalean 19:00ak aldera amaitzen dut. Etxera

“Katalan pixka bat ikasi dut Tarragona inguruan ditudan lagunei esker”



Eneko López kazetaritza ikasten ari da Katalunian.

bueltatzen naizenean unibertsitateko lanak egiten ditut eta amaitu ostean, pisuko kideekin afaldu eta tar-te bat ematen dugu hitz egiten edo telebista ikusten. Denbora librean, ikaskideekin biltzen naiz inguruko hirietara buelta bat emateko batzuetan, baina batez ere, pisukideekin ematen dut denbora gehien Tarragona ikusten, parrandan edo etxean.

Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatuko zara?

Gabonak pasatzera joan nintzen, eta ez dakit ikasturtea amaitu aurretik bueltatuko naizen Ermura. Azterketa eta lanen arabera izango dut bueltatzeko aukera, nahiz eta programa ekainean amaitzen den.

“Gustatuko litzaidake nire lanek barrurako begirada bat sortzea, introspekziarako bide bat izatea”

ROSANA MÉRIDA · marrazkilaria



Umetan hasi zen marrazkiaz zaletzen, txiri-txiri bere kaxetara ikasiz, bere barneko inspirazioari jarraituz. Urte luze izan ditu bere margo eta errotuladoreak gordeta, baina gogotsu oratu dio berriro, marrazteak berarentzako duen onurez inoiz baino kontzienteago delarik. Infreñu tabernan hilabete pasatxo j arrita izan duen erakusketaren aitzakiarekin berarekin egon gara.

Testua eta argazkiak **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Margolari, marrazkilaria... zerk definitzen zaitu hobeto?

Marrazkilaria. Autodidakta naiz eta txikitan hasi nintzen zaletzen, nire barneko leku gozo baten bihurtzera arte.

Umetan zer egiten zenuen?

Boligrafoekin hasi nintzen, gero errotuladoreak etorri ziren eta egurrezko margoak... eskura neuzkan tresnak, gauza arruntak. Ume baten moduan marrazten nuen, baina gero ekinaren ekinez gauza berriak sortzen joan dira. Nire ustez ez duzu marrazten jakin behar: jarri orri txuriaren aurrean, emaitzan pentsatu gabe, eta pertseberantziarekin perfektionatzen saiatu. Hortxe dago gakoa.

Zein da zure sortze prozesua?

Orri txuriaren aurrean jartzen naiz, ezer aurreikusitako barik, eta libre uzten diot eskuari, barrutik datorren

esentzia horri lekua eginez. Arkatzarekin irudiaren bozeto bat egiten dut eta gero koloreztatzen joaten naiz, marrazkia osatuz eta garatuz.

Ze teknikarekin trebatzen zara?

Puntillismoa esango nuke, puntutxoak oinarri direlako.

Inspirazioa, kanpoan edo zure barnean topatzen duzu?

Zalantza barik nire barnean, bertan dagoelako baikoitzaren inspirazioaren iturria.

Izenburua jartzen diezu zure artelanei?

Batzuei bai. Esate baterako, bata deitzen da *Man-dragora*, beste bat *Gaueko Amets*, *Tinta-malkoak*...

Sinatzen dituzu?

Orain bai, lehen ez. Konturatu naiz sinatuta balio bat gehitzen diedala eta gustatzen zait nire buruari nolabait esatea “hau nirea da!”.



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



Esentzia deituriko lana.



Ikusleak zer ikusten du?

Bakoitzak gauza desberdin bat, ziur nago. Egia esan ez dakit zer eragiten dion jendeari.

Niri oso onirikoak iruditzen zaizkit...

Hori beti esan didate, zerbait onirikoa transmititzen dutela. Zaharragoak diren marrazkiak, esaterako, ilunagoak direla aipatzen didate, agian barru-barrutik sortuak direlako. Egia esan, ez dut larregi pentsatzen ze eragin izan dezaketen pertsona batengan, baina bai gustatuko litzaidake nire lanek barrurako begirada bat sortzea, introspektorako bide bat izatea ikuslearentzat.

Umeei gustatzen zaizkie?

Haien sentsibilitatearen arabera. Atentzioa deitzen die, bai.

Zeintzuk dira gehien erabiltzen dituzun koloreak?

Urdinak agian, baina baita moreak, berdeak... Denak erabiltzen ditut, gustatzen zait abaniko kromatiko zabala izatea.

Infreñu tabernan erakusketa bat jarrita izan duzu.

Zer ikusi ahal izan da bertan?

Magibujando-Dibujando magia da nire marrazki bildumaren izenburu orokorra eta hortik 22 lan aukeratu ditut, aspaldikoak batzuk eta berriagoak besteak.

Margolanotan, nabaritu ahal da zure garapen artistikoa?



"Lobianon eta Portalean erakusketaxoren bat egin nahiko nuke"

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI
ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Bai eta hori da jende askok esan didana: bi aro desberdin islatzen dutela. Azken boladan puntu gehiago egiten ditut eta irudi guztia saturatzen dut, espazio guztia betez. Jendeak esaten dit pazientzia handia dudala, baina gustatzen bazaizu erraz egiten den gauza da, oso osasungarria bihurtu daitekeena nire ustez. Emaizta ikusten duzunean, barrutik kanporako bidaia hori egin ostean, oso pozgarria da.

Zer topatuko dugu zure marrazkietan?

Zuhaitzak, sustraiak, ilargiak, emakume asko...

Marratzen zaudenean, ikusle edo erosle posible baten pentsatzen duzu?

Ez, sekula ere ez. Granadan eta Tuteran bizi nintzenean kalean edo lagun baten dendan saltzen nituen, eta gastu batzuk ordaintzeko orduan lagungarri egiten zitzaizkidan. Enkarguzko gauzak gehiago kostatzen zaizkit egitea.

Ze asmo duzu aurrerantzean?

Lobianon eta Portalean erakusketatxoren bat egin nahiko nuke. Eta artisautzako gauzak ere ari naizenez prestatzen, pultserak, lepokoak, kamisetak, poltsak eta abar, etorkizunean salmentan jarri nahiko nituzke.

Zure etxean badaude zure lanak?

Benooo, bai! Sukaldean, komunean, pasilloan...

Miresten duzun margolaririk?

Gustav Klimt asko.

Paper zuri baten aurrean jarri eta sortzeko dohaina edo aukera izatea, zer suposatzen du zuretzat?

Niretzat meditatzea bezalakoa da, ez dut pentsatu behar zer egin behar dudan, egin eta kito! Unea bizi, hemen eta orain. Nire burua marrazkian ainguraturta dago eta, haren baten horregatik, marrazteak oso gustura sentitu eragiten nau.



“Orri txuriaren aurrean jartzen naiz, ezer aurreikusi barik, eta libre uzten diot eskuari, barrutik datorren esentzia horri lekua eginez”



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinala plaza 6 Ermoza, Bizkaia
678 359 337

mediterranea_vintage
mediterranea.vintage

Bitsi-denda Tailer propioa Erelor denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



Zierro
estilistas

Goienkale 9 behea
48260 ERMUA Bizkaia

“Mugara aillegatzie bost segunduko gauzie da eta ez badozu bidien disfrutau, alperrikue da”

Testua ESTIBALITZ GONZÁLEZ

2019 urtien ekin zotsen arren, 2021eko irailetik honakue da bere korrikalari ibilbidie. Mendi zalie izan da betidanik 22 urteko mallabitar gazte hau eta oin lasterketetan parte hartzen dabil, gogotsu eta gozauaz. Ingurumen Zientziak ikasten dihardu Gasteizen eta entrenamendu gogorrenak asteburuetan eitten dauz, ezagutzen nintzen mendixen aldapa malkartsuetan. Hainbat lasterketa irabazi dauz eta Zegama-Aizgorri korridu ahal izatie da bere ilusiñurik haundiñe.

Noz eta zelan hasi ziñen mendi-lasterketetan?

Ekin 2019xen ekin notsen, baina Covid-19xangaittik geldik egon nintzen 2021eko irailera arte. Lagunekin bizikletan ibiltzen nintzen mendixen eta Anboto Kilometro Bertikala eittera animau giñen. Haxe izan zan nire lehelengo lasterketie; gustau eta hamentxe.

Ze distantzia eta desnibelesko frogak eitten-doizuz?

Pare bat orduko iraupena daken 15-20 kilometroko karrerak izeten die eta baitte kilometro bertikalekuek, 50 minututan 1.000 metrora igotzie eskatzen dabezenak.

Entrenamentuek?

Nik antxixiketean eta bizikletan einde entrena-



uriarteasesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

tzen dot. Azkenien, bariedadie da hamen inportantiena. Astien behin entreno xuabe-xuabe bat eitten dot, larregi sufridu barik, bateron baten onduen juen ezkerorberbetan be egin ahal izateko moduko patxadakue.

Bakarrik zoiez? lagunekin?

Bakarrik ibiltzen naz, baina lagunekin be gustura. Ordugegi kontuengaittik gatxa izeten da alkarrekin entrenatzie.

Zer gustatzen jatsu gehixao, bideko sentsaziñuek edo helmugaratzie?

Bidie, bidie. Mugara aillegatzie bost segunduko gauzie izeten da eta ez badozu bidien disfrutau, alperrikue da.

Igotzen edo bajetan, zertan zara zeu trebiaue?

Igotzen. Pisu ariñekue naz eta aldapan gora ondo moldatzen naz.

Hotzaz ala beruaz erosuago? Eurixe be ez da izango lagun ona...

Hotzaz gusturao beti. Eta zenbat eta egualdi txarraue ein, orduen eta gusturao: lokatza, edurre, eurixe... hortxe disfrutatzen dot nik, olgetan eurokin.

Zure burue azken muturrera eruatie, sakatzie, gustau bai?

Bai, asko, asko! Burugogorra eta perfekzionistie naz, eta gustatzen jata ahalegintzie, ahal dotenik onena emotie.

Buruen edo hanketan, zetan dakazu konfixantzaz haundiñe?

Forman zaozenien, hanketan. Baiña justutxuago zabilzenien, burutik tiretu bihar da, hankei eingo dozula siñeste eraitteko.

Zeozertzuk irabazittakue zara, ezta?

Bai, ihezko urtien 8 karrera korridu nittuzan eta 3 irabazi: Pagoetako Mendi lasterketie, Berrizko Amaraune, Oiz menditik ziharrekue dana eta Lemoatx Trail-a.

Euskal Herrixen izan die zortzirok?

Ez, bata Albazeten izan zan.

Eta ze postutan geratu ziñen?

Nire kategorixen, 23 urtetik azpikueta, 6. izan nintzen.

Zure akorduz, ze lasterketa da gustoren ein dozuna?

Ba esango neuke aurreko urtien eindako Aloña mendiko *traila*, Oñatin.

Eta eittie gustauko jatsunik?

Zegama-Aizkorri mendi-lasterketie. Munduko onenetakue da, onenak be etorri datoz eta maila haundixe dao. Izena emonda deuket, baina aukeraketie milaka lagunen arteko zozketa bidezkie danez, gatxa izengo da. Bai, etorkizunien haxe eittie amesten dot.

Noz hurrengue?

Martxoko lehen asteburuen, Urretxu eta Zumarraga aldien korritzen dan UZ Trail-a.

Elikadura kontuok zaintzen dozuz froga baten aurrien?

Bai, sano jatie beti gustau izan jata eta lasterketa baten bezperan arroza, pastie... eta holakuek jaten dittut.

Mankau eta min hartu dozu sekulo?

Ez, suertekue izen naz, ez dot lesinorik euki.

Bide baztarreko ikuslien aupadak eta txaluek animue altxatzen dabe?

Bai, beti. Motibau eitten zaittue, burue karreratik etara eraginde, eta bultzada bat die beti.

Zer sentitzen dozu antxixiketaz zoiazienien?

Ondo noianien, gozatu eitten dot; eskastxuao noianien, dezente sufritzen dot. Ez dabela sufritzen esaten dabenak guzurretan dabil.

Modan parau dira mendi-lasterketak?

Bai, pandemixan ostetik nabarmen gehittu die danien eta Euskal Herrixen batez be. Hamen betidanik egon da mendirako joerie eta zaletasuna; lehen oiñezien igotzen ziran aldaparak, oin antxixiketaz eitten doguz.

“Burugogorra eta perfekzionistie naz, eta gustatzen jata ahalegintzie, ahal dotenik onena emotie”



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardino	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarinetea	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



Biztanleriak gora egin du Mallabian eta behera Ermuan

Eustat erakundeak argitaratu dituen datuen arabera Mallabiak 1.192 biztanle ditu (597 gizonetzko eta 595 andrazko) eta 15.627 Ermuak (7.750 gizonetzko eta 7.877 andrazko). Kopuru txikian ez bada ere, Mallabiak gora egin du aurreko urtekoarekin alderatuz eta 12 pertsona gehiago ditu erroldatuta. 65 urtetik gorakoek guztiaren %23,90 osatzen dute eta atzerrian jaiotakoen portzentajea % 6,10 da.

Ermuak, ostera, beheranzko joera du, 15.806 zituelako erroldatuta 2021 urtean. 65 urtetik gorakoak %26 dira eta atzerrian jaiotakoen portzentajea %9,30 da. Lehen sektorean 108 esplotazio daude Mallabian, eta 5 Ermuan. Mallabian industriak jarduera ekonomikoaren %75,90 suposatzen du eta zerbitzuen sektoreak % 23,30. Ermuan industriak %38,3 hartzen du eta zerbitzuek %50,90.



Elurra iritsi da gurera

Elur-maluta sendoak mantso-mantso jausita zuriz estali dira gure baso, kale eta bideak, txiki eta helduen gozamenerako. Ondorengo euri-jasek eta geroagoko eguzki-printza epelek aidean urtu dituzte bazterrak, txikiagoen atsekaberako.

Aisialdirako gune berria eraikiko du Udalak Zubitegi erreka ondoan

Mallabarrena baserriaren azpiko lur-orubea, orain arte araztegia egon den lekua, Mallabiko Udalak erosi du bertan parke bat egiteko. Barren-barrenetik doan Zubitegi erreka emango dio izena guneari eta egitasmoa adin desberdinentzat eta disziplina ortarikoak izateko asmoarekin jaio da. Hektarea eta erdiko azalera duen eremu lau samarrean kokatuko da, ume, gazte eta helduen aisiara zuzendutako hainbat elementurekin hornituz: txintxaunetz gain, *padle* pista, skate parkea, *pump track* zirkuitoa, ro-

kodromoa, tirolina, gimnasiarako gunea, petanka eta txirlo jolasak... Merendero bat atontzea ere aurreikusten da, mahai eta jarlekuekin. 2023 urtean zehar burutuko dira lanak eta proiektua diseinatzerako orduan, Udalak lehentasuna eman dio adin guztietarako espazioa izateari. Bestalde, eliza ondoan dagoen parkeko txintxaunak zaharberritzen hastekotan dira: egurrezkoak izatean, euriarekin eta eguzkiarekin alperrik galdu dira eta iraupen luzeagoko beste batzuenatik ordezkatu dituzte.





Andutzako putzua, Mallagoi baserriko parajeetan.

Ferretería
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
 egiten ditugu

943 17 69 76
 607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
 ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

ALTALDI
 Correduría de Seguros, S.L.
 ermua@altaldi.com

INMOBILIARIA J.S.
 www.inmojs.com
 943 17 00 02
 676 21 20 75
 info@inmojs.com

Horacio Decoración
 TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSACARRIAK
 www.dghoraciodecoracion.com

VI Centenario 10 - Ermua
 943 03 15 80

ALTALDI
 Correduría de Seguros, S.L.

Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



Koldo Aranberria ermuarrak irabazi du Egunean Behineko Euskal Biruseko saria

*Drogeteniturr*riko aurreko hila-betean jakinarazi genuen bezala, 200 lagun inguruk parte hartu zuten Egunean Behin jokoaren azken edizioan Euskal Birusak sortutako taldean, eta haietako 12k erosketa txekoa jaso zuten zozketaz. Berri

hartan irakur zitekeenez, asteko irabazleen arteko zozketa egiteko zegoen, baina asteburu pasa egiteko txartelak badauka jabea dagoeneko: Koldo Aranberria ermuarra. Zozketa horretan hamabi asteetako irabazleek parte hartu zuten,

eta Koldok bi txartel zituen, bi aste ezberdinetan geratu zelako lehen postuan. “Banekien saria irabazteko aukera dezente nituela —esan du Koldok—, baina alabak esan zidanean sorpresa hartu nuen, bi aste lehenago otarra tokatu zitzaidalako zozketaz”.

Aspaldidanik jokutzen du Koldok Egunean Behinera, bai etxokoekin zein lankideekin dituen taldeetan, eta onartzen du lehia sana sortzen duela. “Mendietan, historian eta geografian nahiko ondo ibiltzen naiz, baina ez naiz oso fisionomista ona, eta egunen batean oso fin ez banabil, penaz hartzen dut, joko honetan erregularra izatea oso garrantzitsua delako”, aitortu du.

Egunean Behineko antolatzaileek Twitter plataformaren bitartez jakinarazi dutenez, urtarilaren 30an abiatuko da joko horren 11. denboraldia eta, Ermuan sortutako taldeak izan duen arrakasta ikusita, taldeari eta sariei eustea erabaki du Euskal Birusa elkarteak. (Argazkian, Koldo Aranberria eta Euskal Biruseko koordinatzailea den Piedi Eizagirre).

Kiroldegiko zerbitzu batzuk asteburu osoz erabilgarri

Neguko ordutegia dela-eta, bigarren denboraldiz eta martxoa amaiera arte asteburu osoz (goizez eta arratsaldez) egongo dira zabalik kiroldegiko hainbat zerbitzu: pizina handia eta txikia, ur-txorrotak, sauna, ondoko lurrunbainua eta bigarren solairuko gimnasio txikia. Ordutegia larunbatetan eta igandetan 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara da. Sauna eta lurrunbainua erabiltzeko alde zurretiko txanda hartu beharra dago eta, edukiera murrizketak atzean lagata, aldi berean 6 lagunek erabili ditzakete.



ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDATEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELBETAN
BIZIARIKO
TXAPELDUNAK
PROIEKTU 5 - 943170563
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Santa Agedako kantu-jira eguerdian egingo da aurten

Bi urtez isilean egon ostean, berriro aterako dira Santa Agedako abeslariak kalerik kaleko euren kantaldia egitera. Otsailaren 4an, Santa Martiriaren egunaren bezperan, ohi zuten bezala herria alaituko dute haren gaineko koplak abestuz. Ohikoa zuten ere dirua batzea eta jasotakoa elkartasun-egitasmoei eskaintzea, eta bere horretan jarraituko dute. Zapatua izanik, iluntzean beharrean, eguerdian aterako da abeste zale taldetxo hau, trikiti soinuz lagunduta. Irteera 11:00etan egingo da, Abeletxe egoitzan. Entseguak ere egongo dira, aurreko ostegunetan, 20:30ean, Alboka Musika Eskolan. Santa Agedaren koplez gain, euskal kantagintzako beste abesti batzuk ere kantatuko dira eta arduradunek kantu-jira alai honetan parte-hartzera animatzen dituzte herritar guztiak, gazte zein heldu.



Pedro Gomez txapelkun geratu da boloetan

II. Neguko Bolo Txapelketan, aurrenengo geratu da Pedro Gomez bolari ermuarra, 16 txirlo botata. Bigarren Alex Campos eibartarra sailkatu da, 14 txirlo bota ostean. Barinagako bolatokian egin zen azken kanporaketa eta 47 lagunek parte hartu dute txapelketa burutu den egun eta leku desberdinetan, eta antolatzaileak pozik azaldu dira parte-hartzearekin, tartean aurpegi berriak ere ikusi dituztelako. Esker berbak izan dituzte ere txapelketa babestu duten enpresentzat eta erakundeentzat.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM**



ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIA

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Plan B

Coffee Lounge

Gin & Beer



**ZUZENBIDE
KONTUAK**



Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Ermuko EPA-HHik matrikulazio epea zabalduko du

Helduei Hezkuntza Iraunkorra emateaz arduratzen den irakasle ekipoa martxan jarriko da berriro datorren hiletik aurrera, oraingo honetan Izarra Centren. Oinarrizko irakaskuntza orokorrak, euskara, gaztelania, ingelesa, oinarrizko matematikak, zientziak... formatzeko edo gaztetan ikasitakoak berriro gogoratzeko aukera eskaintzen du eskolak, eta izena emateko epea urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra izango da. Matrikula Durangoko CEPAn egin behar da, Laubideta kaleko 6. zenbakian, eta ondorengo ordutegiaren barruan: astelehenetik ostegunera 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta ostiralean soilik goizeko jardunearan. Interesatuak errolda ziurtagiria, karnet tamainako argazki bat eta NANA eraman behar dute bertara.



Emakume eta Neskato Zientzialarien Eguna ospatuko da otsailaren 11n

Gaur egun oraindik emakumeak eta neskatoak zientziara gerturatzeko zailtasunak eta oztopoak dituztela frogatuta, nazioarte mailan ahalegin handia egiten ari da beraien parte-hartzea bultzatzeko, zientzian eta berrikuntzan ahalduntzea helburu. Otsailaren 11 dago izendatuta nazioarte mailan Emakume eta Neskato Zientzialarien Eguna bezala eta zapatu horretan hain juxtu ospatuko da Ermuan ere, Udalaren ekimenez eta Innpulso Sarearen bitartez.

Egunean zehar ekitaldi desberdinak egongo dira, guztiak Ermua Antzokian: goizean hitzaldia eta

umeentzako zientzia-tailerrak, eta arratsaldean Piztu! EmakumeON energia antzezlanak, Marie Curie ikertzailearen bizitza ezagutzeko beta eskainiko duena.

Gurean ere bi ikertzailearen izenak nabarmentzen dira, euren jardueragatik sarituak izandakoak eta ezagutu beharreko erreferenteak: Maite Alvarez Rodriguez biologo ermuarra eta Luz Zalduegi Gabilondo albaitari mallabitarra, biak ala biak Wikipedian irakurgarri https://eu.wikipedia.org/wiki/Maite_Alvarez eta https://eu.wikipedia.org/wiki/Luz_Zalduegi orrialdeetan.

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

LEIRE RASCO

BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

Instagram: @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

OSTATUKUA



Zubiaurre eta Baldespina kalietara zabaltzen zan taberna eta bere lehen aitxamenak XIX. mendera eruaten gaitxue. Aktibo egon zan urte luzietan ostatu, jatetxe, sifoi eta gaseosa fabrika, dantzaleku eta gerra aurrean Batzoki ere izan zen. Constan Mallagarai eta Maria Aranburu andra-gizonen kargu, estimazio haundixa zeken haren sukaldeko karakolak, txipiroiak, oilagorrak saltsan eta berdura menestrak. Ostatu hartutakuei, bertan emoten zotsien lua eta jana; ostekaldian zekan kortan, beti zeuan lekuren bat bidaiarion zaldi edo bihorrentzat be. 1977 urtian bota zan eta gaur egun haren orubia Kutxabank gaineko etxebizitzek betetzen dabe.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Inurrien besarkada bizitzari

Bularreko minbiziaren ikurra arrosa koloreko xingola izan arren, argi diote *pink* baino punk direla gehiago, minbizia, zerbait bada, marroia delako, "marroi handia". Minbizia diagnostikatu zieten Mari Seara Eizagirri (Deba, 1972) eta Jordina Arnau Roigi (Selva del Camp, La selva del camp, 1991), eta askotan sentitu dira itolarrian beraiek ere, baina halakoetan, burua altxatu eta bizitza besarkatzea erabaki dute, "hasierako desesperazioan ezin delako bizi". Horregatik batu dira Izan Inurrira, minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraltzailetik lantzeko Lasarte-Orian sortu zuten elkartera. Izan inurriren izatea zabaldu nahi dute orain Debabarrenean ere, inurri tribuaren indarra ezinbesteko ikusten dutelako minbiziaren kontrako borrokan.

Ainara Argoitia (DKT)

Minbiziaren aurkako tratamendua jasotzen ari zen garaian ezagutu zuen Mari Searak Jordina Arnau, eta zer den bizitza: sendagiria jasota pozarren onkologikotik irten zen uanean jakin zuen Jordinari bularreko minbizia diagnostikatu ziotela. 2019ko uztailaren 4a zen. Berarekin gelditu nahiko lukeela esanez hitzordu eske ari zitzaien laguna whatsapppe. Berriro minbizia, berriro eztarrian korapiloa. Gaixotu zenean berak falta izan zituen erreferente haien bila ari zen orain laguna. 28 urte bete berriak zituen Arnauk, eta lanpostua eta gainerako dena laga eta Kataluniatik Euskal Herrira bizitzera iritsi berria zen. Gaztea zen, familian ez zuen minbizia kasurik izan aurrez, eta horregatik seguraski, ginekologoak berak ere mamurikez ikusteko esan zion, bularrean gogortasun bat sentitu zuela esanez ikaratuta joan zitzaien estreinako aldian, baina iritsi zen "hostiakoa". "Denbora galduarazten ari nintzaiola ere sentiarazi zidan, baina insistitu nuen eta biopsiaren emaitzekin batera

iritsi zitzaidan gero danbatekoa. Kaka eginda nengoen, izugarriko beldurra nion sufritzeari. Nik aukeratu ez nuen mundu baterako VIP sarrera jaso nuen, errusiar mendiaren itxura duen eta bizitza osoa aldatzen digun mundurakoa, eta eskutik heldu eta bere prozesua bizipenetatik kontaktuko zidan norbait behar nuen, minbiziaren inguruan dena delako oso estereotipatua, denak dirudielako beltza, oso homogenea eta heriotzari oso lotua; beste diskurtso bat behar nuen", azaldu du Arnauk.

Minbizia inguratzen duten tabuak uxatuko zizkion norbait nahi zuen, kontaktuko ziona bazekiena, minbizia marroi handia dela, baina esango ziona, baita ere, sarri isiltzen dena: minbizia duen bitartean pertsona hori bizirik dagoela, eta beraz, bizitzan dezakegun dena dezakeela: bizi, negar, barre, maitatu, desiratu... "Minbiziak hil daiteke, bai, eta tratamendua oso gogorra da, baina zergatik mugatu behar gara gaixotasuna biktima paperean bizitzera? Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi; izango

zen izan behar zuena, baina bizirik nengoen eta bizi nahi nuen; eta hala egin nuen!", dio horren harira Searak. Pentsakera hori izateagatik minbiziak arinkeriaz hitz egitea leporatu dietenik ere izan dela aitortu du Arnauk, eta azpimarratu du: "Ez diogu garrantzirik kendu nahi ezerrri. Amorragarria eta gogorra da hau dena oso, eta errespetatzen ditugu, jakina, minbizia bizitzeko era guztiak, baina subjektu aktibo garena defendatzen dugu guk".

Diskurtso eta egiteko hori du Izan Inurri elkarteak sorreratik. Julene Illarramendi, Miren Cuerdo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten taldea, Illarramendiren ama (Eba Elexpuru) minbiziak hil eta bi urtera, eta Elexpuruk gorputzean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena. Sortzaileek aitortua dute pretentsio handirik gabe sortu zutela elkarte, minbiziaren dutenen alde zerbait egiteko, eta hala hasi zirela kamisetak eta zapi solidarioak josten eta saltzen, dirua bildu eta dohaintzan emateko. Orain, "eklosioan" dago elkarte. Iazko otsailean batu ziren talde era-



Izan Inurri elkarteko Mari Seara Eizagirre eta Jordina Arnau Roig. Harremanetarako: izaninurri.com. AINARAARGOITIA

gilera Jordina Arnau eta Olatz Mercader, eta geroztik, antolatu dituzte bertso-saio solidarioak, biluztu dira eta sortu dute egutegi, sortu dituzte podcastak Spotifyn [(MIN)Bizi euskaraz eta Dragón Cancer gaztelaniaz], antolatu dituzte formazio saioak eta arteterapia saioa, tematu dira dibulgazioan eta ikerketan, eta ehundu dute minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenen sare bat, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. Sortu dute "espazio libre, seguru eta konfiantzazkoa" minbizia normalizatzeko eta taburik gabe hitz egiteko. Eta egin eta egiten dute hori dena, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, osasuna ere, gizonezkoen ikuspegitik aztertzen delako gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak ere jaso dituztelako sarri.

Patriarkatuaren itzala

"Emakumeok programatuak izan gara gure gorputzak besteek ikusten eta sentitzen dituzten bezala ikusteko, guk nola sentitzen ditugun eta nola erabili nahi ditugun ikus-

teko baino gehiago", hasi du haria Searak. "Dena dago prestatuta amaizateko dugun eskubidea bermatzeko. Esterilizazioa eragiten du tratamenduak, baina hasieratik esaten dizute obuluak gordetzeko aukera dagoela. Desira sexualik izango dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik kanpo gelditzen da. Ez dute halako galderarik espero gugandik eta ez da horren inguruan azalpenik ematen", gehitu du ondotik Arnauk. Gaur gaurkoz, bularrekoa da minbizirik zabalduena emakumezkoetan eta prostatakoa gizonezkoetan, baina nabarmendu dute gizonezkoen sexu beharrak asetzeko ikertu beharreko dena ikertu den arren,

Minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraldatzailetik lantzen ditu Izan Inurrik

oraindik ez dela ikertu bularreko minbiziak zer eragin duen emakumeen sexualitatean. "Gurea garrantzirik gabeko kastrazio kimikoa da, gure gorputzak erreproduktzioerako eta besteen desirak asetzeko daukelako uste baita", esan du Arnauk. Eta horregatik uste dute, adibidez, falta dituztela bular bakarreko pertsonen erreferentziak eta bihurtzen dela ilea erortzea benetako arazo askorentzat.

Bularra galtzea

Erabili zuen ile-ordea Searak ere eta protesia jartzeko ebakuntza ere egin zioten bularra kendu ondoren. "Askotan, ematen du bularra berregitea zikloa ixteko ezinbesteko pausoa dela, baina ez da. Nik ere egin nuen saioa, baina ez nengoen gustura nire gorputzarekin, eta gorputzak berak ere ez zidan onartu protesia». Garbi dio emakumeoi inposatzen zaizkigun estereotipo estetikoek eragiten dutela halako erabakietan. "Bularra galtzea ez da beste gorputz atal bat galtzea bezalakoa, eta horri buruz hitz egin beharra dugu", zehaztu du. Estatu espainiarrean, urtero



16.000 mastektomia egiten dira, eta horietatik 4.800 kasutan ebakuntza egiten da bularra berregiteko. Nolanahi ere, badaude berreraiki ezin diren bularrak, bai eta aukera horri uko egiten dioten emakumeak ere. Beraz, urtean 11.200 bat titibakar gehiago dira, baina hala ere, "gorputz horiek biluzik erakustea iraultza egitea dela uste da oraindik eta batzuetan nahi ez lituzketen esaldiei erantzun behar izaten diogu gure lagunek, 'egin ezazu senarragatik' eta halakoei".

Inurrin argi dute minbizia ez dutela beraiek aukeratu, baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela. "Kasu bakoitza kasu bat da, eta denak entzuteko eta ahal dugunean laguntzeko gaude gu, ez baitugu ahaztu behar gaixo egotea garestia dela", nabarmendu du Arnauk. Osasungintza publikoan jarri dute begia. Onkologikoan artatu zituzten biak, eta ez dute jasotako tratuaz kezarik. Oso profesional onak topatu zituzten han, eta "arreta gertukoa eta konfiantzazkoa" jaso zuten uneoro, baina tratamendu onkologikoaz gain, kimioterapia, radioterapia eta kirurgiaz gain alegia, beste tratamendu edo profesional batzuen laguntza ere behar izan dituzte -psikologoak, nutrizionis-

tak...- eta hori dena arlo pribatuan bilatu behar izan dute. "Gaixotu nintzean langabezia-saria jasotzen ari nintzen, baina hilean 300 euroekin gelditu nintzen. Ez neukan laguntzarik jasotzeko eskubiderik ere, ez neramatzalako hemen hiru urte errolatuta. Hala ere, beste asko baino hobeto nengoen, inguruan dudan sareak mantendu ninduelako ekonomikoki eta bestela. Minbiziak bizitzako arlo guztietan eragiten du eta laguntza terapeutiko handia behar izaten dugu urte askoan zehar, hau ez baita urtebete kontua askotan entzun behar izan dugun bezala", dio Arnauk. Patriarkatuaren itzalaz eta gaixotzean biderkatzen diren desberdintasun sozialez ari dira solasaldian, gaixo guztiek ez baitute gaixoaldia modu berean eramateko ahalik. Osasungintza publikoaren "eskastea" ere aipatu dute: "Gure inurri lagunek

nabarmen igarri dute, bereziki pandemiatik hona".

Bidelagun izatea nahikoa da

Horretarako osatu dute inurritegia. Emakumeak dira gaur gaurkoz Izan inurriren bueltan dabiltzanak eta ematen die horrek zer pentsatua, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duenarentzat, "edo zeinek duelako zer ekarria proiektura". Tribuaren indarra ezinbestekoa dutela diote, eta azpimarratu dute ez direla gerrari, askotan aurkeztu izan badituzte ere han-hemen. Bizitza tokatu zaiena onartu eta ahal duten eran bere egin dutela diote, eta oso barneratuta dute Izan inurrik azpimarratzen duena: "Hobe besarkada eman bizitzari, energia borroka hutsaletan erabiltzeak ez duelako zentzurik". Ulertzen dute, hala ere, aldamenekoen eta inguruko asmatu ezina. "Minbizia izan dudan arren, neuri ere gertatu zait beste bati zer esan ez jakitea", aitortu du Arnauk, baina badute gomendio bat, Maider Estensoro inurrikidearen ahotan entzun daitekeena beren Facebooken. "Ez bota begirada errukitsurik. Ez badakizue zer esan, ez esan ezer. Eman besarkada bat edo laztan bat. Bidelagun izatea nahikoa da; egote hutsa".

Bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela argi dute Izan Inurrin



Robotikan murgiltzen

Urte berri batean sartuta gaudela eta digitalizazio hitza gure ahoan dabilela, gure ikasle batzuk robotika lantzen hasiko dira. Gora eta behera, alde batetik bestera (antzinako automaten moduan), gure robotak sortzeko eta mugitzeko prest daude, “espero dugu ondo joatea eta (pelikulen moduan) robotei mundua suntsitzeko nahia ez sortzea”. Zorte on gure ikasleei, bere ekintza berrian.

Taloak egiten... ze goxo

Aurtengo azaroan, COVID-19 pandemia pasa ondoren, berriz ekin diegu San Martin Azokako eginkizunei, eta horietatik bat taloak egitea izan da. Haur Hezkuntzatik 4. DBHra arte, taloak egiten ibili izan dira gure ikasleak. Irina, ura, gatza nahastuz, taloaren masa sortu, forma eman, plantxatik pasa eta ondoren txokolatzet beteak, jateko lan kate guztia egin izan dute, oso ongi pasa dute, eta, noski, hau guztia, euskaraz solasten egin da. Triapak txokolatzet beteak eta ahoa euskal hitzez gainezka, ze gozo zeuden esaten, bukatu zuten ikasleak.



Zerbitzu solidarioa, elkarlanean aritu



Aurten, erronka berri batean murgildu gara. Gure ikasleek asteartero zenbait proiektu aurrera eramane dituzte, horietatik bat Ikasketa Zerbitzu Solidarioa izan da. Lehenengo asteetan zehar programatu eta ekintzak zeintzuk izango ziren erabaki zuten gure ikasleek, eta azkenean bost proiektu atera ziren, besteak beste: ortua eta Gure Nagusiekiko Kolaborazioa. Azken honekin urtarrilaren 17an hasi gara, eta kurtsoan zehar kolaborazioak jarraituko du, adinekoek denbora tarte batean gure gazteekin elkarlanean aritzeko eta ondo pasatzeko (batzuk zein besteak). Ekintza horien artean: dantzak, karaokea, elkarrizketak... Animatu ditzagun nagusiak, gure aiton-amonak izango balira bezala!

SEHIGA
PROTECCION LABORAL, LAB. BARRERAKO ORINDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMik INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bidez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



AINARA RIVERAS

Esnatzen has gaitezen, bada

Aste gutxi ziren gure artean zegoela. Kanean kantuan eta makila lurra kolpatuz ari zirenei begira txundituta eta ahoa zabal geratu zen, bertan geunden gainontzekook, eskean zebiltzanekin batera, “Zorion, etxe hontako denoi...” kantatzen genuen bitartean.

- Zertan ari dira makilekin? – galdetu zigun Anderri eta bioi, guri barregurea eman eta eutsi ezinik geundela. Hasiera batean, Isabellak zein galdera arraroak egiten zituen pentsatu genuen barrurako, baina, ulertzen genuen berarentzat Santa Ageda bezpera arrotza izatea. Abestia bukatu eta etxerako bidea hartu bezain pronto, berak galdetutakoa erantzuten hasi eta orduan konturatu ginen txikitatik hain modu naturalean jasotako ohitura benetan oso gutxi ezagutzen genuela.

Amama gurera egun batzuk pasatzera etorria zela aprobetxatuta, gau horretako afal ostea ezberdina izan zen:

- Santa Ageda bezpera aintzinako oso ohitura zaharra da, gure artean oraindik oso ospatua dena. Kristau tradizioaren arabera, Kataniako Santa Ageda III. mendeko birjina eta martiria izan zen. Garaiko enperadoreak, bere plazerrak berarekin lortu ez zituenez, torturatzea eta bularrak moztea agindu zuen.

- Baina zer harreman du horrek makilekin? – galdetu zion Anderrek.

- Bai, kristau tradizioak emakume bat aukeratu zuen gurean antzinatik zegoen ohitura bereganatzeko, baina, natura esnatzen laguntzea, birsortzea da guk gure makilekin egiten duguna. Betiko gogora ezazue: naturak bizitza ematen digu eta gu berarekin gara. Urte berriaren erditzea, bere bizitzarekin elika gaitzan ospatzen dugu horrela. Gure bizitza zuzenean naturarekiko elkarreraginean oinarritzen zenean urteak bi sasoi nagusi zituen, negua eta uda. Mimo handiarekin egin eta zaindu behar izaten genuen bizitzaren momentu bakoitzari zegokiona eta gure etorkizuna naturaren eta berarekin egiten genuenaren menpe zegoen.


Zaldibarko tragedia etxean, pandemiaren izenean txertaketa masiboak eta osasungintza publikoa kolokan, Ukrainako gerraren izenean prezioak bortizki gora, makroproiektuak martxan jartzeko udal-araudiak errespetatzen ez dituen Ingurumen Administrazioaren Legea edo ezagunagoa den “Tapia Legea”, aldaketa klimatikoaren izenean Eusko Jaurlaritzak berriki argitaratu duen EAEko Energia Eolikoen Lurralde Plan sektoriala eta abar luzea. Betikoez trikimailu zaharrekin oinarrian garena suntsitzeko eta gure bizitzak maneiatzeko asmo beretsuekin dabilta, antza.

Gutako bakoitzarengandik hasita, gardentasuna, konpromisoa eta benetako jasagarritasuna izan daitezela lema, aro berria denona eta denontzat izatea nahi badugu, behintzat. Sasoi berria hemen da. Santa Ageda bezperako makilekin eta ahotsekin ozen batu eta esnatzen has gaitezen, bada.

**“Natura
esnatzen
laguntzea,
birsortzea
da guk gure
makilekin
egiten duguna”**

KOLDO NARBAIZA

Koldo Narbaiza ermuarrak 20 urte ditu. Etxeko txikiena da, arreba nagusiago bat izanik. Magisteritza ikasten du, ingeleseko adarrean oinarritua, eta DJ lanak egiten ditu DJDonkey bezala..



Nola pasatu izan duzu gaztaroa?

Geldigorra nintzen, kirola egitea asko gustatzen zitzaidan eta hainbat kirol egiten nituen normalean. Skate parkean ibiltzen nintzen lagunekin, baita futbolera zein pilotara jokatzeko ere.

Nola sortu zitzazun DJ izateko aukera?

2021eko San Martinetan izan zen. Eskilarapeko Ateneoko txosnan musika jartzen ibili nintzen, eta asko gustatu zitzaidan. Lagunekin eta baita Ermuko jendearekin momentu ederra pasatu genuen. Hortik aurrera, lagunek proba bat egiteko proposamena egin zidaten, eta hor sortu zen DjDonkey-ren ideia.

Zer musika mota gustatzen zaizu?

Beti entzun izan dut euskal musika eszenako edozein talderen musika: punk, rock, ska edo reggaea. Hala ere, azkenaldian musika mota ezberdinak entzuten hasi naiz: techno, rap afroamerikarra eta jazz-a ditut gustuko ditut azkenaldi honetan. Esango nuke musika guztia gustatzen zaidala, edozer gauza edozein momentutan entzun dezakedalako.

Eta zein musika mota jartzen duzu

DJ lanak egiten dituzunean?

Normalean pil-pilean dauden abestiak zein euskal musika eszenan dabilzan taldeen abestiak jartzen ditut. Gehien bat jendeari dantzarazten diona.

Zer nolako erantzuna izan duzu?

Erantzun anitzak izan ditut, eta denak entzuteko desiratzen egoten naiz, hutsegiteak konpontzeko. Uste dut beharrezkoa dela jendearen iritzia ezagutzeko, ikasteko era bat delako eta baita ideia berrien iturri aberatsa. Gainera, nire koادرilan musikagile bat dugu, Mike Sea, eta laguntza handia eman dit hobetzeko asmoz. Nire bizitzako esperientzia polit bat da, asko gozatu dudana, eta agian etorkizun batean berriro errepikatuko dudana. Hala ere gauza berriak probatzeko gogoak ditut.

Aisialdian zer egiten duzu?

Kirola egin ezinik nabilenez, bi gauza bakarrik egiten ditut denbora librean: lagunekin eta ingurukoekin egon eta musika berria bilatu, bai kontzertuetara joanez bai plataforman digitaletan bilatuz.

Kirolen baten jarraitzaile zara?

Futbola da gehien kontsumitzen

dudan kiroleko bat, baina edozein kirol ikusi dezaket.

Bidaia bat nora?

Txilera joatea gustatuko litzaidake, eta etorkizunean joateko asmoa dut. Bestalde, Austria ikustea ere gustatuko litzaidake, Tirol aldea. Oraindik denbora dut bidaia hauek egiteko, beraz, gai honek ez nau arduratzen.

Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Egunik zoriontsuena aipatzea zaila da, asko bizi izan ditudalako. Hala ere, bakarra aukeratu behar ko banu, 2022ko uztailearen 24-a da. Ilusio handiz bizi izan nuen egun hura, zeren eta Ermuko gazteon etengabeko lanari esker, hamai-ka urteren ostean, azkenik lortu izan genuen txosnagunea berriz ere egitea. Asko gozatu nuen egun hartan, eta seguruenik herriko gazteok inoiz ahaztuko ez dugun egun bat izango da.

Nahia Ruiz Albizuri



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGUAK
943 030 299

1953

E R M U A

Joxio baserri ingurutik erretratatuko Ermuak ezer gutxi du 70 urte beranduago ezagutzen dugun herri jendetsutik. Erretratuan, esaterako, Santa Ana eta Santiago auzoak eraikiko ziren orubeetan soloak eta landak besterik ez dira ikusten. 1950 urtean herriak 1.725 biztanle zituen eta 2023 honetan 15.627 dira bertan erroldatu-takoak. Ordura arteko armagin eta baserri- lanbide nagusiak, industriarekin eta herriaren neurritz kanpoko hazkunde esplosiboarekin lotu-takoekin tartekatzen hasi ziren.



1980

M A L L A B I A



Mallabiko erdiguneko ikuspegi zabal honetan, gerora etorritako etxebizitza asko eta asko eraiki gabe daude oraindik: Mikel Zaraten, Ansoaga bietan, Mallabarrenan... Eskola inguruan ere gerora eraiki zen. 1980 urte horretan herritarrak 1.149 ziren eta 2023 honetan 1.192 dira bertan erroldatu-takoak. Baserriaren lanbide nagusia eta bakarrenetakoa; gerokoan industriarekin lotutakoak ugarituz joan ziren.

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Ile-epiandegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitu-tako burua
garbitzeko konketa

Caperos

Probaleku z/g
(ERMUA)

**Pintxoak
Razioak
Kaxolak**

**Plater konbinatuak
Ogitartekoak**

699 292 043
636 549 154



IRAGARKI LABURRAK

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean ☎ 688695331

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Ermua inguruan ☎ 688642761



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Otsailaren 17a.**



Urtarrilaren 28an Zorionak **LUKEN!!!** 8 urtetxo gure etxeko txikiak. Gozatu pila eta jarraitu hain alai! Asko maite zaitugu! Gure txutxufleta!



Urtarrilaren 28an Zorionak **AIUR!** Izugarri maite zaitugu, primeran pasa zure 7. urtebetetzean. Musu erraldoia Naiat, Ekhi eta zure lehengusuen partez.



Otsailaren 5ean Zorionak mutil handi!!! 10 urte jada, gure etxeko artistak! Ez galdu inoiz daukazun irribarre, alaitasun eta irudimen izugarri hori. Maite zaitugu! Ama, aita eta Claudiaren partez mila milioi muxu!




Otsailaren 14an Zorionak Popi!! Bigarren eskua beharko duzu 6. urtebetetze honetan!! Segi duzun bizipon hori mundura zabaltzen. Maitagarria zara! Pilo-pilo maite zaitugu, Claudia! Aita, ama eta Lukaren partez.



Urtarrilaren 25ean Zorionak **JULEN!!** Zazpi urte gure etxeko txapeldunak!! Egun polita izan eta muxu asko etxeko guztion partez! Maite zaitugu pilo-pilo bat!



Urtarrilaren 29an Zorionak **NAIA!!** Oso ondo pasatu zure urtebetetzean, eta jarraitu ezazu irribarre polit horrekin. Maite zaitugu.



Otsailaren 8an Zorionak **LUKEN!!!!** Aurten 14 urte beteko dituzu, gazte zoragarria zara eta zutaz oso harro gaude. Besarkada handi bat familiaren partez.



Otsailaren 18an Zorionak **MARTIN!** Asko maite zaitugu, muxu handi bat familia guztiaren partez!

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemorid Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol. Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

4tik 6ra: "Babylon"
11tik 13ra: "La ballena"
 + "El suplente"
18tik 21era: "Lobo feroz"
 + "Kompromat"
25etik 27ra: "Tar"
 + "La amiga de mi amiga"
 Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.

ZINE KLUBA

Hilak 2: "Holy Spider"
Hilak 9: "Silent Land"
Hilak 16: "Increible pero cierto"
Hilak 23: "Mikado"
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5: "Izurde mutikoa"
Hilak 12: "A todo tren 2"
Hilak 19: "Inspector Sun"
Hilak 26: "El asombroso Mauricio"
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 19: Rock kontzertua: Orihen (disco berriaren aurkezpena). 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 5€
Hilak 10: Kontzertua: Corizonas. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€
Hilak 25: Blues & rock and roll Kontzertua: Nirek Moka & His Boogie Messengers. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 3: "Lehendakari gaia", Txalo Produzkoak eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€
Hilak 24: "Mundos para ellos", Óscar Terolen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNAK

Hilak 4: Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.
Hilak 11: Haurrentzako antzerkia: "Piztu! Emakumeon energia", Eidaberen eskutik. 17:00etan. Ermua

Antzokian. Sarrera: 4€
Hilak 25: Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 4: Agata Deunaren kalejira. 11:30etik aurrera. Abeletzeko egoitza.

INAUTERIAK

Otsailak 16, osteguna. EGUEN ZURI

- 16:00etan: Oilarraren jokoa
- 17:30ean: Diskofesta: Xaibor DJarekin

Otsailak 17, ostirala. HARTZA EGUNA

- 18:30ean: Kalejira Lobiano Kulturgunetik

Otsailak 18, LARUNBATA

- 12:30ean: Mozorro lehiaketaren kuadrillen kalejira
- 13:00etan: Kalejira Irulitxa txarangarekin
- 17:30ean: Haurrentzako txokolatada
- 18:00etan: Haurrentzako dantzaldia Zirika Zirkus taldearen eskutik
- 19:00etan: Kalejira Irulitxa txarangarekin
- 19:30ean: Haurrentzako mozorro lehiaketa
- 20:00etan: Diskofesta Maximunsekin
- 23:00etan: DJ Festa Festa Los 40rekin

Otsailak 21, ASTEARTEA

- 16:00etan: Haurrentzako diskoteka
 - 18:00etan: Kale ikuskizuna: "Jirafas", Xirriquiteula taldearen eskutik
 - 19:00etan: Erromeria Ekhy taldearekin
 - 23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin
- Ekitaldi guztiak Orbe Kardinalaren Plazan



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Errealak	

Zeharbatea 8 Td. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4
Ermua

Tel.: 943 030 512
niklinika@gmail.com



irale
Horts Klinika
Clinica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IRAZ
Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



OINAK
LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

HAJAZAREN GUTIA

Zatoz lekeo jantzitail



Otsailaren 17an

18:30ean

Santixapeko iturrian



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

